

Babarrun eta sagardo onenaren bila

Igande honetan, San Tomas azoka ospatuko da Usurbilen

Aurtengoan, abenduaren 14arekin egokituko da San Tomas eguneko azoka Usurbilen. Azken urteotan bezalaxe, herritarrek eginiko sagardoa dastatu ahal izango dugu. Eta bertako ekoizleek egindako babarrunak ikusteko aukera ere izango da. Lehiaketa bidez aukeratuko dira aurtengo sagardo eta babarrun onenak. Festa biribiltzeko, Aizkora Txapelketa jokatu dute, nor baino nor, usurbildar aizkolari gazteek eta beteranoek.

Sagardo zein babarrun lehiaketetara aurkezteko epea abenduaren 11n amaituko da. Azken orduan animatzen bazara, NOAA!ra ekarri beharko dituzu babarrunak eta sagardoa: babarrunaren kasuan, kilo bat eta trukean 12 euro ordainduko dira. Sagardoaren kasuan, 8 botilen truke, 12 euro.

Sagardo lehiaketa

Etxean edo baserrian egindako sagardoa bildu ohi da San Tomas azokan. Alegia, sagardotegiek ezin dutela lehiaketa honetan parte hartu.



NOAA!K, AITZAGAK ETA SAGARDO EGUNAREN LAGUNAK ANTOLATU DUTE SAN TOMAS EGUNEKO EGITARAUA.

Babarrun lehiaketa

Babarrun lehiaketan, ezaugarri hauek hartuko dira kontuan: itxura, kolorea, berdintasuna, dizdira, garbitasuna... Epaimahaiak erabakiko ditu hiru babarrun onenak.

Sari ederrak

Babarrun zein sagardo lehiaketetan, ondorengo sariak izango dira:

Irabazlearentzat, 150 euro eta txapela.
Bigarren geratzen denarentzat: 80eur o.
Hirugarren saria: 50 euro.

Badatoz Ikatz eta Lore, Olentzeroren lagunak

Aste honetan Aginagan eta Zubietan izango dira. Eta datorren astean, Agerialdeko ikastola eta Kalezarreko Haur Eskola bisitatuko dituzte. Lore eta Ikatz Olentzeroren lagunak dira eta eguberrien berri ematera hurbilduko dira egun hauetan.

2 eta 5 urte bitarteko haurrekin bilduko dira egun hauetan.

Abenduaren 11n osteguna, Aginagako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin bilduko dira, goizeko 10:00etan.

Abenduaren 12an ostirala, Zubietako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleengana joango dira Ikatz eta Lore, goizeko 10:00etan.

Datorren astean, Agerialdeko ikasto-

latik eta Kalezarren dagoen Haur Eskolatik pasako dira. Abenduaren 15ean astelehena, 3 urteko haurrekin bilduko dira Agerialden, goizeko 10:00etan. Abenduaren 16an eta ordu berean, Agerialdeko 4 urteko ikasleekin. Abenduaren 17an goizeko 10:00etan, Agerialdeko 5 urteko haurrekin. Abenduaren 18an, ordea, Kalezarren izango dira Ikatz eta Lore, 2 urteko haurrekin.

Abenduaren 19an, Olentzerorentzat gutunak

Abenduaren 19an gutun bila pasako dira. Goizeko 9:30ean, Aginaga bisitatuko dute. 10:00etan, Zubietan. Eta 11:25ean, Udarregin gutunak jaso eta kalejiran hartuko dute parte.



IKATZ ETA LORE BISITAN IZANGO DIRA EGUNOTAN.